

BISCAY MARINE ENERGY PLATFORM, S.A. REN
KONTRATAZIO BATZORDEAREN AKTA

Bilbon, 2019ko ekainaren 25ean

Idazkariak aurretiaz egindako deialdiari jarraiki, 2019ko maiatzaren 2ko datarekin, BISCAY MARINE ENERGY PLATFORM, S.A. ren (BIMEP) Kontratazio Batzordea bildu da, eta bertan honako kide hauek izan dira:

BATZORDEKIDEAK

Javier Marques Gonzalez jauna, EEEko Zuzendari Teknikoa.

Álvaro Colón Barriocanal jauna, EEEko Idazkari Nagusia

Rosa Madina Romero andrea, EEEko Ekonomia-Finantzako zuzendaria

Carlos Aguirre Arana jauna, EEEko G.B. eta Z.O. ko zuzendaria, Enrique Monasterio Beñaran jaunaren orde, EEEko Garapen eta Berrikuntzako zuzendaria dena, bertaratu ezina adierazi duena.

IDAZKARIA EZ BATZORDEKIDEA

Iker Alaña Zorrilla jauna, EEEko Kontratazio Ataleko arduraduna.

Monasterio jaunaren bertaratze ezina dela eta, Marques Jaunak Presidente gisa jardungo du.

Gai-zerrenda jorratzeko, honako eduki hauen arabera:

1. *Prozedura irekiaz "BLUEGIFT" EUROPAR PROIEKTUAREN AUDITORIA KONTRATUA (BIMEP/19/004)ren kontrataziorako aurkeztutako eskaintzen balorazio txostena.*
 2. *Kontratu txikien esleipenen zerrenda.*
 3. *Beste gai batzuk.*
 4. *Bileraren akta irakurtzea eta, hala badagokio, onartzea.*
-
1. **Prozedura irekiaz "BLUEGIFT" EUROPAR PROIEKTUAREN AUDITORIA KONTRATUA (BIMEP/19/004)ren kontrataziorako aurkeztutako eskaintzen balorazio txostena.**

Aipatutako kontratuaren Balorazio Txostena, Kontratazio Batzordearen deialdiarekin batera bidali dena, Dorleta Marina andreak egin du, kontratuaren arduradun gisa, eta BIMEPeko Zuzendari Teknikoak berretsi.

Batzordeko kideei aipatutako kontratuaren balioespen txostenaren eduki nagusia azaldu zaie. Eman beharreko azalpenak eta zehaztapenak entzun eta gero, Batzordeko kideek hauxe erabaki dute aho batez:

<<Aurkeztu zituzten eskaintzen txostena eta balioespenaren emaitzak ikusita, ZUBIZARRETA CONSULTING, S.L.k aurkeztutako eskaintza, 1.500 euroko zenbatekoagatik txosten bakoitzeko (BEZ kanpo), eta bere eskaintzan adierazitako baldintzetan, prezio-kalitate erlazio onena duena dela izendatzea proposatzen da>>.

Beraz, honako honi ekingo zaio:

- a) Kalitate-prezio erlazio onena duen eskaintza egin duen lizitatuileari dagokion dokumentazioa eskatzea, Klausula Administratibo Berezien Agirian edo Pleguan eskatzen dena, hamar (10) egun balioduneko epearen barruan, eskakizuna jasotzen duen egunaren biharamunetik kontatzen hasita.
- b) Kontratazio-organoari jakinaraztea esleitzeko proposamena, "BLUEGIFT" EUROPAR PROIEKTUAREN AUDITORIA KONTRATUA (BIMEP/19/004)ri dagokionez.

2. Kontratu txikien esleipenen zerrenda.

Batzordeko kideei BIMEPek esleitutako kontratu txikien zerrendaren berri eman zaie; hain zuzen ere, Kontratazio Batzordeak burutu zuen azken bileratik hona.


3. Beste gai batzuk.

Ez da beste gairik izan.


4. Bileraren akta irakurtzea eta, hala badagokio, onartzea.

Bileraren akta idazteari ekin zaio eta irakurri ondoren, aho batez izan da onartua.

Bilera amaitu eta gero, akta hau sinatzeko eman zaie, eta bertan BISCAY MARINE ENERGY PLATFORM, S.A.ren Kontratazio Batzordeko presidentek eta idazkariak izenpetu dute.



Javier Marqués González jn.
Kontratazio Batzordeko presidentea



Iker Alaña Zorrilla jn.
Kontratazio Batzordeko idazkaria